



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD



CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL DEPARTAMENTO DE SALUD DEL GOBIERNO VASCO EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE CONSUMO PÚBLICO Y LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE LAS ZONAS DE BAÑO

En Vitoria-Gasteiz a 31 de enero de 2019

REUNIDOS

El Sr. D. Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta, Director General de la Agencia Vasca del Agua y el Sr. D. Ignacio Jesús Berraondo Zabalegui, Viceconsejero de Salud del Gobierno Vasco.

INTERVIENEN

El primero de ellos, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

El segundo, en su calidad de Viceconsejero de Salud del Gobierno Vasco y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 5.g) del Decreto 80/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Salud.

Ambos intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente convenio de colaboración, y a tal efecto.

EXPONEN

Primero.- Que según el Decreto 80/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Salud, dictado al amparo del Decreto 24/2016, de 26 de noviembre, a la Dirección de Salud Pública y Adicciones le corresponde entre otras las siguientes funciones:

- El desarrollo, ejecución y evaluación de las políticas de protección de la salud, en particular todos aquellos programas relacionados con la seguridad y salud ambiental, alimentaria y de aguas, y tanto respecto a los riesgos físicos, químicos o biológicos.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL DEPARTAMENTO DE SALUD DEL GOBIERNO VASCO EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE CONSUMO PÚBLICO Y LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE LAS ZONAS DE BAÑO

- El desempeño, como autoridad sanitaria, de las facultades administrativas previstas en la legislación vigente dirigidas al control sanitario y registro, evaluación de riesgos e intervención pública en la higiene y seguridad alimentaria, aguas de consumo público, salubridad del medio ambiente, biosidas, gestión de residuos sanitarios y demás actuaciones relacionadas con la protección de la salud pública.
- En relación con los laboratorios de salud pública, a la Dirección de Salud Pública y Adicciones le corresponden las siguientes funciones: a) La coordinación y supervisión de los medios materiales, económicos y humanos asignados a los laboratorios de salud pública. b) La estandarización de los sistemas de aseguramiento de calidad en los laboratorios y el aseguramiento de la calidad analítica. c) La planificación de la revisión y, en su caso, incorporación de las técnicas analíticas necesarias para responder a los programas de protección. d) La planificación, coordinación y gestión de la respuesta analítica de la Dirección de Salud Pública y Adicciones, de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de otros departamentos e instituciones, así como de otros agentes externos.

Segundo.- Que por Ley 1/2006, de 26 de junio, se creó la Agencia Vasca del Agua, como ente público de Derecho privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, siendo la entidad responsable en materia de aguas en el ámbito de las competencias que corresponden a la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y al que le corresponden entre otras las siguientes funciones:

- La elaboración y remisión al Gobierno, para la aprobación, modificación o tramitación ante las autoridades competentes, de los instrumentos de planificación hidrológica previstos en la citada Ley 1/2006.
- La participación en la planificación hidrológica estatal de las cuencas intercomunitarias, de acuerdo con su normativa reguladora.
- Intervenciones para la protección del dominio público hidráulico y marítimo-terrestre, en especial el otorgamiento de las concesiones y autorizaciones administrativas, así como la vigilancia e inspección y sanción de las infracciones contrarias a la normativa reguladora del dominio público hidráulico y de costas.

Tercero.- Que tanto en el Real Decreto 140/2003, de 7 de febrero, por el que se establecen los criterios sanitarios de la calidad del agua de consumo humano como en el Real Decreto 1341/2007, de 11 de octubre, sobre la gestión de la calidad de las aguas de baño se establecen obligaciones para las autoridades sanitarias y para las administraciones hidráulicas, y que entre otras destacan las relacionadas con controles analíticos, la puesta en común de la información generada y la necesaria coordinación de actuaciones.

Cuarto.- Que tanto la Dirección de Salud Pública y Adicciones como la Agencia Vasca del Agua consideran necesario el establecimiento de un marco estable de colaboración que concrete, entre otras, el diseño y ejecución de tareas de vigilancia, control, tratamiento y evaluación de información y, en su caso, la elaboración e implantación conjunta de planes de protección de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano y de las zonas de baño.

Quinto.- Que tanto la Dirección de Salud Pública y Adicciones como la Agencia Vasca del Agua consideran que el establecimiento de este marco estable de colaboración supondrá aumentar el grado de eficiencia de los medios técnicos y humanos de los que disponen ambas instituciones.

Sexto.- Que tanto la Dirección de Salud Pública y Adicciones como la Agencia Vasca del Agua consideran que este marco estable de colaboración servirá para facilitar de forma periódica información relevante tanto a todas las partes interesadas (Entidades Locales, Ayuntamientos o Mancomunidades y a los gestores de los abastecimientos, y proveedores y distribuidores) como a la ciudadanía en general.

Séptimo.- Que tanto la Dirección de Salud Pública y Adicciones como la Agencia Vasca del Agua consideran que pueden existir en el futuro otros ámbitos o materias de interés común que pueden formar parte del presente convenio de colaboración.

Octavo.- Que estando ambas partes conformes con los objetivos descritos en función el régimen competencial y de trabajo descritos para ambos, acuerdan suscribir el presente convenio de colaboración con las siguientes.

CLÁUSULAS

1 OBJETO DEL CONVENIO

Es objeto del presente convenio afianzar una serie de actuaciones que favorezcan una mejor protección de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano y de las zonas de baño, contemplando de forma integrada aspectos salud y medio ambiente.

2 ACTUACIONES EN EL MARCO DEL CONVENIO

Las actuaciones contempladas en el marco del presente convenio se pueden agrupar en las siguientes líneas de trabajo:

- Revisar y ejecutar el programa de seguimiento del estado de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano.
- Diseñar y ejecutar un programa de seguimiento del estado de las aguas de las áreas de influencia de las zonas de baño acordes con los perfiles de aguas de baño.
- Revisar y verificar los esquemas de abastecimiento urbano en alta del País Vasco mediante un sistema de georreferenciación de las captaciones de agua destinadas a la producción de agua de consumo humano.
- Programa de seguimiento de efluentes de vertido con riesgo de afectar a la salud de la población.

3 COMPROMISOS

3.1 *Compromisos de ambas partes*

En el marco de este convenio tanto la Agencia Vasca del Agua como la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco se comprometen con carácter general a:

- Poner en común cuanta información se disponga y sea necesaria para la correcta ejecución de los trabajos cuya realización constituye objeto del presente Convenio, y en el caso de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano y de las zonas de baño, con especial énfasis en la información relativa a la existencia de potenciales riesgos de contaminación, el planteamiento de actuaciones encaminadas a la reducción de dichos riesgos; y el grado de eficacia de dichas actuaciones.
- Proponer líneas de investigación y propuestas de actuación en materia de mejora de la protección de las aguas de consumo público y de las aguas de las zonas de baño.
- Establecer protocolos de comunicación mutua ante la detección de riesgos de contaminación de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano y de las zonas de baño.
- Desarrollar protocolos de actuación y coordinación, que pudieran incluir la participación de otros entes como gestores de saneamiento y depuración y entidades de abastecimiento de agua de consumo humano, para la protección de la salud de las personas y la mejora de la calidad del agua.
- Facilitar la colaboración y asistencia exigida para el mejor cumplimiento del objeto del presente convenio, y en caso necesario articular la coordinación y, en su caso, participación de otros entes y organismos para el mejor desarrollo de los trabajos cuya realización constituye objeto del presente convenio.
- Poner a disposición de este convenio medios humanos y materiales para la correcta ejecución de los trabajos que se planteen en este convenio, dentro de las disponibilidades económicas y compromisos presupuestarios asumidos por las partes.
- Evaluar conjuntamente los resultados de los trabajos que se planteen en este convenio y en su caso elaborar informes de evaluación.
- Mejorar los sistemas de intercambio de información entre las plataformas que disponga la Dirección de Salud Pública y Adicciones y la Agencia Vasca del Agua
- Informar periódicamente a la comisión de seguimiento que se crea en la cláusula 4 del presente convenio de cualquier hecho relevante para la correcta ejecución de los trabajos que se planteen en el mismo.

3.2 *Compromisos relacionados con la ejecución del programa de seguimiento del estado de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano*

En relación con las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano y en coordinación con la Dirección de Salud Pública y Adicciones, la Agencia Vasca del Agua se compromete a:

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL DEPARTAMENTO DE SALUD DEL GOBIERNO VASCO EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE CONSUMO PÚBLICO Y LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE LAS ZONAS DE BAÑO

- Comunicar periódicamente a la Dirección de Salud Pública y Adicciones las revisiones del Registro de Zonas Protegidas de las cuencas internas del País Vasco, en cuanto a aguas destinadas a la producción de agua potable de acuerdo a la normativa de aplicación.
- Revisar el programa de seguimiento del estado de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano en los siguientes aspectos: selección de puntos de control, asignación de variables y frecuencia de control, y su adecuación periódica al Registro de Zonas Protegidas.
- Ejecutar controles periódicos en los puntos establecidos en el programa de seguimiento del estado de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano, es decir, toma de muestra de acuerdo a las frecuencias y ubicaciones establecidas en el programa de seguimiento, así como con los requerimientos técnicos que establezca el Laboratorio de Salud Pública, dependiente de la Dirección de Salud Pública y Adicciones; incluida la correcta conservación y transporte de las muestras hasta dependencias del citado laboratorio.
- Obtener resultados analíticos en toda toma de muestras respecto a los parámetros in situ.

En relación con las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano y en coordinación con la Agencia Vasca del Agua, la Dirección de Salud Pública y Adicciones Gobierno Vasco se compromete a:

- Colaborar con la Agencia Vasca del Agua en la revisión y el mantenimiento del Registro de Zonas Protegidas, en cuanto a aguas destinadas a la producción de agua potable.
- Participar en el diseño del programa de seguimiento del estado de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano.
- Establecer los requerimientos técnicos necesarios para la toma de muestra, conservación y transporte de las mismas hasta dependencias de Laboratorio de Salud Pública.
- Realizar en el Laboratorio de Salud Pública las determinaciones analíticas que se deriven del diseño del programa de seguimiento del estado de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano.

Ambas entidades se comprometen a que la información recabada en cuanto a la calidad de las aguas destinadas a la producción de agua de consumo humano sea disponible por ambas partes mediante el desarrollo de sistemas de intercambio de información entre las plataformas que disponga la Dirección de Salud Pública y Adicciones y la Agencia Vasca del Agua, (ORALIMS, EKUIS, UBEGI y DKT).

El objetivo planteado para 2019 es el diseño del programa en cuanto a puntos de control, frecuencia de control y batería de parámetros asociados; y la ejecución de las tareas derivadas de este diseño.

Se estima inicialmente que implicará el control de unos 120 puntos de control (550 muestras) mediante tres baterías de parámetros:

- Perfil I: indicadores microbiológicos de contaminación fecal e indicadores fisicoquímicos básicos. Se estima que el número de análisis asociado a este perfil es de 550.
- Perfil II: además de los parámetros incluidos en el perfil I, metales de presencia más habitual así como otras propiedades globales de contaminación que caracterizan el tipo de agua. Se estima que el número de análisis asociado a este perfil es de 300.
- Perfil III: incluyen parámetros de los perfiles anteriores además del conjunto de metales, plaguicidas y otros contaminantes recogidos en el RD 817/2015 de interés para Salud Pública. Se estima que el número de análisis asociado a este perfil es de 200.

3.3 Compromisos relacionados con la ejecución del programa de seguimiento asociado a las áreas de influencia de las zonas de baño acordes con los perfiles de aguas de baño

En relación con las masas de agua declaradas de uso recreativo, en coordinación con la Dirección de Salud Pública y Adicciones, la Agencia Vasca del Agua se compromete a:

- Diseñar un programa de seguimiento asociado a las áreas de influencia de las zonas de baño acordes con los perfiles de aguas de baño en los siguientes aspectos: selección de puntos de control ambiental, asignación de variables y frecuencia de control, y su adecuación periódica al Registro de Zonas Protegidas.
- Ejecutar controles periódicos correspondientes al programa de seguimiento asociado a las áreas de influencia de las zonas de baño, es decir, toma de muestra de acuerdo a las frecuencias y ubicaciones establecidas, así como con los requerimientos técnicos que establezca el Laboratorio de Salud Pública, dependiente de la Dirección de Salud Pública y Adicciones; incluida la correcta conservación y transporte de las muestras hasta dependencias del citado laboratorio.

En relación con las zonas o masas declaradas de uso recreativo, en coordinación con la Agencia Vasca del Agua, la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco se compromete a:

- Informar anualmente a la Agencia Vasca del Agua de las revisiones del censo de zonas de baño de la CAPV.
- Participar en el diseño del programa de seguimiento de las áreas de influencia de zonas de baño.
- Realizar en el Laboratorio de Salud Pública las determinaciones analíticas que se deriven del diseño del programa de seguimiento establecido en los puntos de control ambiental de las zonas de baño.

Colaborar con la Agencia Vasca del Agua en la elaboración periódica de los perfiles de aguas de baño.

Ambas entidades se comprometen a que la información recabada en cuanto a la calidad de las zonas de baño y las zonas de influencia de las zonas de baño sea disponible por ambas partes mediante el desarrollo de sistemas de intercambio de

información entre las plataformas que disponga la Dirección de Salud Pública y Adicciones y la Agencia Vasca del Agua.

El objetivo planteado para 2019 es el diseño del programa en cuanto a puntos de control, frecuencia de control y batería de parámetros asociados; y la ejecución de las tareas derivadas de este diseño.

Se estima inicialmente que implicará el control de unos 41 puntos de control (525 muestras) mediante dos baterías de parámetros:

- Perfil I-M: indicadores microbiológicos de contaminación fecal. Se estima que el número de análisis asociado a este perfil es de 145.
- Perfil II-M: indicadores microbiológicos de contaminación fecal, indicadores fisicoquímicos básicos e indicadores de contaminación orgánica. Se estima que el número de análisis asociado a este perfil es de 525

3.4 Compromisos relacionados con la revisión y verificación de los esquemas de abastecimiento urbano en alta del País Vasco

En relación con la revisión y verificación de los esquemas de abastecimiento urbano en alta del País Vasco, y en coordinación con la Dirección de Salud Pública y Adicciones, la Agencia Vasca del Agua se compromete a:

- Mantener y mejorar el visor de edición elaborado para la geolocalización de los elementos implicados en los esquemas de abastecimiento urbano en alta.
- Actualizar la información de base de la aplicación de geolocalización tras la revisión y verificación de los datos introducidos por la UCVs.
- Reportar las coordenadas de las captaciones, depósitos y ETAP a la Dirección de Salud Pública y Adicciones para que sean introducidos en EKUIS.
- Verificar la integridad de la información recabada con respecto a la que se halle en disposición de la Agencia Vasca del Agua

En relación con la revisión y verificación de los esquemas de abastecimiento urbano en alta del País Vasco, la Dirección de Salud Pública y Adicciones del Gobierno Vasco se compromete a:

- Formar a las Unidades de Control y Vigilancia (UCV) en el manejo del visor de edición elaborado para la geolocalización de los elementos implicados en los esquemas de abastecimiento urbano en alta.
- Solicitar a las UCV la verificación, modificación o actualización de la geolocalización de los elementos implicados en los esquemas de abastecimiento urbano en alta.
- Verificar la integridad de la información recabada con respecto a la que se halle en disposición de la Dirección de Salud Pública y Adicciones.

3.5 Programa de seguimiento de efluentes de vertido

En relación con la vigilancia y el control de riesgos, la Dirección de Salud Pública y Adicciones y la Agencia Vasca del Agua se comprometen a diseñar un programa de seguimiento de los efluentes de vertidos susceptibles de contaminar aguas destinadas

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL DEPARTAMENTO DE SALUD DEL GOBIERNO VASCO EN MATERIA DE PROTECCIÓN DE LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE CONSUMO PÚBLICO Y LA CALIDAD DE LAS AGUAS DE LAS ZONAS DE BAÑO

a la producción de agua de consumo humano y a las zonas o masas declaradas de uso recreativo las aguas de baño.

4 COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DEL CONVENIO

Para el seguimiento de la ejecución del presente convenio se crea una comisión integrada por una persona en representación de cada parte firmante:

- Por la Agencia Vasca del Agua, el Director General u otra persona en quien delegue.
- Por la Viceconsejería de Salud, el Director de Salud Pública y Adicciones, u otra persona en quien delegue.

Son funciones de la comisión de seguimiento:

- Proponer las posibles prórrogas indicadas en la cláusula 6 y la posible extinción del convenio según lo indicado en la cláusula 7, previos los trámites que resulten adecuados por parte de cada administración firmante.
- Proponer las modificaciones de los compromisos establecidos en este convenio.

Durante la vigencia del convenio y a propuesta del representante de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones.

5 RÉGIMEN E INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO.

El convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas y demás disposiciones concordantes.

La resolución de los problemas de interpretación que pueda plantear el convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior, si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en Capítulo VI del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

6 EFECTOS Y DURACIÓN DEL CONVENIO.

El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

El presente Convenio entrará en vigor el día siguiente a la firma y mantendrá su vigencia hasta el 31 de diciembre de 2019. Antes de la finalización de dicho plazo las partes pueden acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales, de conformidad con lo dispuesto en la reiterada Ley 40/2015.

7 EXTINCIÓN DEL CONVENIO

El convenio se extinguirá bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra, o para exigir su estricto cumplimiento, o para solicitar la resolución.

En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización.

8 FINANCIACIÓN

Cada una de las partes firmantes del presente convenio de colaboración deberá asumir los gastos propios que se deriven de las obligaciones establecidas en virtud del convenio, con cumplimiento de la normativa presupuestaria vigente.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por duplicado, en el lugar y fecha expresados en el encabezamiento.



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

D. Ignacio Jesús Berraondo Zabalegui

VICECONSEJERO DE SALUD
GOBIERNO VASCO



D. Ernesto Martínez de Cabredo Arrieta,

DIRECTOR GENERAL DE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA



URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, KONTSUMO PUBLIKOKO ETA BAINU-GUNEETAKO UREN KALITATEA BABESTEAREN ESPARRUAN

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 31

BILDURIK

Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta jauna, Uraren Euskal Agentziako zuzendaria, eta Ignacio Jesús Berraondo Zabalegui jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburuordea.

PARTE HARTZEN DUTE

Lehenengoak Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia delako, eta Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dion eskuduntzari jarraikiz.

Bigarrenak Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburuordea delako, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuak 5.g) artikuluan ematen dion eskuduntzari jarraikiz.

Bi aldeek aitortzen diote elkarri lankidetzaz hitzarmen hau egiteko legezko gaitasuna, eta

AZALTZEN DUTE

Lehenengo.- Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretua azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren babespean eman zen, eta haren arabera, bada, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari dagokio honako eginkizun hauek betetzea, besteak beste:

- Osasuna babesteko politikak garatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, batez ere, ingurumen, elikadura eta uren arloko segurtasun eta osasunarekin zerikusia daukaten programa guztiak, arrisku fisiko, kimiko zein biologikoei dagokienez.
- Sanitatearen arloko agintari gisa, indarreko legedian xedatzen diren administrazio-eskumenak erabiltzea, hauek guztiak gauzatu ahal izateko: kontrol sanitarioa eta

erregistroa, arriskuen ebaluazioa, eta esku-hartze publikoak elikadura-higiene eta -segurtasunean, edateko uren kalitatean, ingurumenaren osasungarritasunean, biozidetan, osasun-hondakinen kudeaketan eta osasun publikoaren babesarekin zerikusia duten gainerako jarduera guztietan.

- Osasun publikoko laborategiei dagokienez, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren ardura da honako eginkizun hauek betetzea: a) Osasun publikoko laborategietara esleitutako bitarteko material eta ekonomikoak nahiz giza baliabideak koordinatu eta ikuskatzea. b) Laborategietan kalitatea bermatzeko sistemak estandarizatzea eta analisisen kalitatea bermatzea. c) Babes-programei erantzuteko beharrezkoak diren analisi-teknikak berrikusi, eta, hala badagokio, sartzeko plangintza ezartzea. d) Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren, beste sail eta erakunde batzuen nahiz kanpoko beste agente batzuen erantzun analitikoa planifikatu, koordinatu eta kudeatzea.

Bigarren.- Ekainaren 26ko 1/2006 Legearen bidez sortu zen Uraren Euskal Agentzia, ingurumenaren gaineko eskumena duen Sailera atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, eta erakunde hori bera arduratzen da uren arloaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari dagozkion eskumenen eremuan. Beraren erantzukizuna dira, era berean, honako eginkizun hauek:

- Aipatu 1/2006 Legean plangintza hidrologikorako aurreikusitako tresnak prestatu eta Jaurlaritzari bidaltzea, eskumena duten erakundeetan agiri horiek onartu, aldatu edo izapidetzeko.
- Erkidegoen arteko arroen Estatuko Plangintza Hidrologikoan parte hartzea, beren araudi erregulatzailaren arabera.
- Jabari publiko hidraulikoa eta itsaso eta lehorraren arteko jabaria babesteko esku-hartzeak egitea, bereziki administrazioaren emakida eta baimenak ematea eta jabari publiko hidraulikoaren eta kostetako jabariaren araudiarekin bat ez datorren arau-hausterik gertatzen ote den zaindu eta ikuskatu eta, halakorik bada, dagozkion zehapenak ezartzea.

Hirugarren.- Ondorioz, bai otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretuan (Giza kontsumorako uren kalitatearekin loturiko osasun-irizpideak ezartzen dituenen), bai urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuan (bainu-uren kalitatearen kudeaketari buruzkoan) berariaz ezartzen dira osasun-agintaritzentzako eta administrazio hidraulikoentzako betebeharrak, eta horien artean nabarmentzen dira, besteak beste, kontrol analitikoekin, sortutako informazioa bateratzearekin eta jardueren artean beharrezkoa den koordinazioarekin lotutakoak.

Laugarren.- Bai Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari, bai Uraren Euskal Agentziari beharrezkoa iruditzen zaie lankidetzaz-esparru egonkorra ezartzea, besteak beste honako hauek zehaztuko dituenak: informazioa zaindu, kontrolatu, tratatu eta ebaluatzeko zereginak diseinatu eta betearazteko modua, eta, hala badagokio, urak babesteko planak elkarlanean ezartzeko modua, giza kontsumorako eta bainu-guneetarako ura ekoizteko.

Bostgarren.- Bai Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, bai Uraren Euskal Agentziak uste dute lankidetzaz-esparru egonkorra ezartzean areagotu egingo dela bi erakundeek dituzten giza baliabideen eta bitarteko teknikoaren eraginkortasun-maila.

Seigarren.- Bai Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, bai Uraren Euskal Agentziak uste dute lankidetzaz-esparru egonkor hau lagungarria izango dela aldian-aldian informazio esanguratsua emateko alderdi interesdun guztiei (tokiko erakundeei, udalei edo mankomunitateei, eta horniduren kudeatzaileei, eta hornitzaile eta banatzaileei), bai eta herritarrei, orokorrean, ere.

Zazpigarren.- Bai Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak, bai Uraren Euskal Agentziak uste dute etorkizunean interes komuneke beste arlo edo gai batzuk egon daitezkeela, lankidetzaz-hitzarmen honetan sartzeko modukoak.

Zortzigarren.- Bi alderdiak bat datoz bientzat deskribatutako lanaren eta eskumenen arabera ezarritako helburuekin, eta lankidetzaz-hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauek tartean:

KLAUSULAK

1 HITZARMENAREN XEDEA

Hitzarmen honen xedea da hainbat jarduera finkatzea, giza kontsumorako eta bainu-guneetarako ura ekoizteko urak hobeto babeste aldera, osasuneko eta ingurumeneko alderdiak modu integratuan aurreikusita.

2 HITZARMEN-ESPARRUKO JARDUERAK

Hitzarmen honen esparruan aurreikusitako jarduerak honako lan-ildo hauetan batu daitezke:

- Giza kontsumorako urak ekoizteko uren egoeraren jarraipen-programa berrikusi eta betearaztea.
- Bainu-guneetako eragin-arloetako uren egoeraren jarraipena egiteko programa diseinatu eta betearaztea, bainu-uren profilen arabera.
- Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-mailako goi-hornidurarako eskemak berrikusi eta egiaztatzea, giza kontsumorako urak ekoizteko ur-harguneen geoerreferentziazio-sistema baten bidez.
- Biztanleriaren osasunean eragiteko arriskua duten isuri-efluenteen jarraipena egiteko programa.

3 KONPROMISOAK

3.1 *Bi alderdien konpromisoak*

Hitzarmen honen esparruan, bai Uraren Euskal Agentziak, bai Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak konpromiso hauek, oro har, hartzen dituzte beren gain:

- Hitzarmen honen xedean sartzen diren lanak era egokian egiteko dagoen eta beharrezkoa den informazioa bateratuko dutela, eta giza kontsumorako eta bainu-guneetarako urak ekoizteko uren kasuan, bereziki erreparatuko diotela kutsadura-arriskuari buruzko informazioari, arrisku horiek murrizteko jardueren planteamenduari, eta jarduera horien eraginkortasun-mailari.
- Kontsumo publikoko uren eta bainu-guneetarako uren babesa hobetzeko jarduera-proposamenak eta ikerketa-lerroak proposatuko dituztela.
- Giza kontsumorako eta bainu-guneetarako ura ekoizteko urak kutsatzeko arriskuak antzemateko orduan elkarrekin komunikatzeko protokoloak ezarriko dituztela.
- Jarduera- eta koordinazio-protokoloak garatuko dituztela, eta horietan beste agente batzuek ere parte hartu ahal izango dutela, tartean saneamendu- eta arazketa-kudeatzaileek eta giza kontsumoko ura hornitzen duten erakundeek, pertsonen osasuna babestu eta uraren kalitatea hobetze aldera.
- Hitzarmen hau hobeto betetzeko eskatzen diren lankidetzak eta laguntza emango dituztela, eta, beharrezkoa bada, beste erakunde eta organismo batzuen koordinazioa, eta, hala badagokio, partaidetza antolatuko dituztela, hitzarmen honen xedean sartzen diren lanak modu hobean garatze aldera.
- Hitzarmen honen esku jarriko dituztela hitzarmen honetan planteatzen diren lanak era egokian egiteko giza baliabideak eta bitarteko materialak, alderdiek hartutako aurrekontu-konpromisoen eta ekonomia eskuragarriaren barruan.
- Elkarlanean ebaluatuko dituztela hitzarmen honetan planteatzen diren lanen emaitzak, eta, hala badagokio, ebaluazio-txostenak egingo dituztela.
- Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eta Uraren Euskal Agentziak dituzten plataformen artean informazioa trukatzeko sistemak hobetuko dituztela.
- Aldian-aldean informazioa emango diotela hitzarmen honen 4. klausulan sortzen den jarraipen-batzordeari, bertan planteatzen diren lanak era egokian egiteko edozein gertaera esanguratsuren gainean.

3.2 *Giza kontsumorako urak ekoizteko uren egoeraren jarraipen-programa betearaztearekin lotutako konpromisoak*

Giza kontsumorako urak ekoizteko urekin lotuta, eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin koordinatuta, Uraren Euskal Agentziak zin egiten du:

- Aldian-aldean jakinaraziko dizkiola Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroen gune babestuen erregistroko berrikuspenak, edateko ura ekoizteko uren gainean, aplikagarri den araudiaren arabera.

- Giza kontsumorako ura ekoizteko uren egoeraren jarraipena egiteko programa berrikusiko duela, honako alderdi hauetan: kontrol-puntuak hautatzean, kontrol-maiztasunak eta aldagaiak esleitzean, eta gune babestuen erregistroa aldian-aldian egokitzean.
- Aldizkako kontrolak egingo dituela giza kontsumorako ura ekoizteko uren egoeraren jarraipen-programan ezarritako puntuetan, hau da, laginak hartuko dituela jarraipen-programan ezarritako maiztasunen eta kokapenen arabera, Osasun Publikoaren Laborategiak (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren menpe dagoenak) ezarritako eskakizun teknikoaren arabera. Horren barruan, laginak modu egokian zaindu eta garraiatu beharko dira aipatu laborategiko bulegoetara.
- Laginak hartzen diren bakoitzean emaitza analitikoak eskuratuko dituela, in situ parametroen arabera.

Giza kontsumorako urak ekoizteko urekin lotuta, eta Uraren Euskal Agentziarekin koordinatuta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zin egiten du:

- Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan arituko dela, gune babestuen erregistroa berrikusi eta mantentzeko lanetan, edateko ura ekoizteko urei dagokienez.
- Giza kontsumorako urak ekoizteko uren egoeraren jarraipen-programa diseinatzen parte hartuko duela.
- Laginak hartzeko, zaintzeko eta horiek Osasun Publikoko Laborategiaren bulegoetara garraiatzeko beharrezko eskakizun teknikoak ezarriko dituela.
- Osasun Publikoaren Laborategian garatuko dituela giza kontsumorako urak ekoizteko uren egoeraren jarraipen-programa diseinatzean sortzen ziren zehaztapen analitikoak.

Bi erakundeek zin egiten dute giza kontsumorako ura ekoizteko uren kalitatearekin lotuta jasotzen duten informazioa bien esku egongo dela eta, horretarako, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren eta Uraren Euskal Agentziaren artean informazioa trukatzeko sistemak garatuko dituztela (ORALIMS, EKUIS, UBEGI eta DKT).

2019rako planteatutako helburua honako hau da: programa diseinatzea, hau da, kontrol-puntuak, kontrolaren maiztasuna eta lotutako parametroen multzoa; eta diseinu horren ziozko zereginak betetzea.

Hasiera batean aurreikusitakoaren arabera, 120 kontrol-puntu inguru (550 lagin) kontrolatuko dira, hiru parametro-multzoren bidez:

- I. profila: kutsadura fekalaren adierazle mikrobiologikoak eta oinarritzko adierazle fisikokimikoak. Profil honekin lotutako azterketa-kopurua 550ekoa dela kalkulatzen da.
- II. profila: I. profilean jasotako parametroez gain, maizen agertzen diren metalak, bai eta ur-motaren bereizgarri diren beste kutsadura-ezaugarri nagusi batzuk ere. Profil honekin lotutako azterketa-kopurua 300ekoa dela kalkulatzen da.
- III. profila: aurreko profiletako parametroak hartzen ditu barne, bai eta metalak, pestizidak eta Osasun Publikoaren interesekoak diren eta 817/2015 Errege Dekretuan

jasotzen diren beste kutsatzaile batzuk ere. Profil honekin lotutako azterketa-kopurua 200ekoa dela kalkulatzen da.

3.3 Bainu-guneetako eragin-arloekin lotutako jarraipen-programa betearaztearekin lotutako konpromisoak, bainu-uren profilen arabera

Jolas-erabilerako ur-masekin lotuta, eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin koordinatuta, Uraren Euskal Agentziak zin egiten du:

- Bainu-guneetako eragin-arloekin lotutako jarraipen-programa diseinatuko duela, bainu-uren profilen arabera, honako alderdi hauekin: ingurumeneko kontrol-puntuak hautatzean, kontrol-maiztasunak eta aldagaiak esleitzean, eta gune babestuen erregistrora aldian-aldian egokitzean.
- Aldizkako kontrolak egingo dituela bainu-guneetako eragin-arloekin lotutako jarraipen-programan ezarritakoaren arabera, hau da, laginak hartuko dituela ezarritako maiztasunen eta kokapenen arabera, Osasun Publikoaren Laborategiak (Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren menpe dagoenak) ezarritako eskakizun teknikoaren arabera. Horren barruan, laginak modu egokian zaindu eta garraiatu beharko dira aipatu laborategiko bulegoetara.

Jolas-erabilerako masa edo guneekin lotuta, eta Uraren Euskal Agentziarekin koordinatuta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zin egiten du:

- Urtero jakinaraziko dizkiola Uraren Euskal Agentziari EAEko bainu-guneetako erroldaren berrikuspenak.
- Bainu-guneetako eragin-arloen jarraipen-programa diseinatzen parte hartuko duela.
- Osasun Publikoko Laborategian garatuko dituela bainu-guneetako ingurumenaren kontrol-puntuetan ezarritako jarraipen-programa diseinatzean sortzen diren zehaztapen analitikoak.
- Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan arituko dela bainu-uren profilak aldian-aldian egiteko orduan.

Bi erakundeek zin egiten dute bainu-guneen eta bainu-guneetako eragin-arloen kalitatearekin lotuta jasotzen duten informazioa bien esku egongo dela eta, horretarako, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren eta Uraren Euskal Agentziaren artean informazioa trukatzeko sistemak garatuko dituztela.

2019rako planteatutako helburua honako hau da: programa diseinatzea, hau da, kontrol-puntuak, kontrolaren maiztasuna eta lotutako parametroen multzoa; eta diseinu horren ziozko zereginak betetzea.

Hasiera batean aurreikusitakoaren arabera, 41 kontrol-puntu inguru (525 lagin) kontrolatuko dira, bi parametro-multzoren bidez:

- I-M profila: kutsadura fekalaren adierazle mikrobiologikoak. Profil honekin lotutako azterketa-kopurua 145ekoa dela kalkulatzen da.

- II-M profila: kutsadura fekalaren adierazle mikrobiologikoak, oinarritzko adierazle fisikokimikoak, eta kutsadura organikoaren adierazleak. Profil honekin lotutako azterketa-kopurua 525ekoa dela kalkulatzen da.

3.4 Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-mailako goi-horniduraren eskemak berrikusi eta egiaztatzearekin lotutako konpromisoak

Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-mailako goi-horniduraren eskemak berrikusi eta egiaztatzeko, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzarekin koordinatuta, Uraren Euskal Agentziak zin egiten du:

- Hiri-mailako goi-horniduraren eskemetan inplikaturako elementuak geolokalizatzeko egindako edizioaren bisorea mantendu eta hobetuko duela.
- Geolokalizazio-aplikazioaren oinarritzko informazioa eguneratuko duela, Kontrol eta Zaintza Unitateek (KZU) sartutako datuak berrikusi eta egiaztatu ondoren.
- Harguneen, gordailuen eta edateko uren tratamendutegien koordinatuak jakinaraziko dizkiola Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzari, datuok EKUISen sar daitezen.
- Jasotako informazioaren osotasuna egiaztatuko duela, Uraren Euskal Agentziaren esku dagoena kontuan hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-mailako goi-horniduraren eskemak berrikusi eta egiaztatzeko, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak zin egiten du:

- Kontrol eta Zaintza Unitateei (KZU) prestakuntza-emango diela, hiri-mailako goi-horniduraren eskemetan inplikaturako elementuak geolokalizatzeko egindako edizioaren bisorea erabiltzeko moduaren gainean.
- KZUei eskatuko diela hiri-mailako goi-horniduraren eskemetan inplikaturako elementuen geolokalizazioa egiaztatu, aldatu edo eguneratu dezatela.
- Jasotako informazioaren osotasuna egiaztatuko duela, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren esku dagoena kontuan hartuta.

3.5 Isuri-efluenteen jarraipena egiteko programa

Arriskuak zaindu eta kontrolatzeko, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak eta Uraren Euskal Agentziak zin egiten dute giza kontsumorako urak ekoizteko eta bainu-guneetan jolas-erabilerako masa eta guneetarako urak kutsatu ditzaketen isuri-efluenteen jarraipena egiteko programa diseinatuko dutela.

4 HITZARMENAREN JARRAIPEN-BATZORDEA

Hitzarmen hau betearazten ote den jarraipena egiteko, batzorde bat sortu da. Horren kide da, zehazki, alde sinatzaileetako bakoitza ordezkatzeko duen pertsona bat:

- Uraren Euskal Agentziaren aldetik, zuzendari nagusia edo hark eskuordetzen duen beste pertsona bat.

- Osasuneko Sailburuordetzaren aldetik, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria, edo hark eskuordetzen duen beste pertsona bat.

Jarraipen-batzordearen egitekoak honako hauek dira:

- 6. klausulan adierazitako luzapen posibleak eta hitzarmena iraungitzeko aukera proposatzea, 7. klausulan adierazitakoaren arabera, administrazio sinatzaile bakoitzak egokiak diren izapideak garatu ondoren.
- Hitzarmen honetan ezarritako konpromisoen aldaketak proposatzea.

Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, lanak behar bezala egiteko behar den bakoitzean elkartuko da batzordea, aldeetako edozeinen ordezkariak eskatuta.

5 HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA INTERPRETAZIOA

Hitzarmen hau administrazio-arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetzak hitzarmenei aplikatu beharreko administrazio-araubidea eta bat datozen gainerako xedapenak bete beharko dira.

Hitzarmenak edo hitzarmenaren betearazpenak sorraraz ditzakeen interpretazio-arazoak jarraipen-batzordeak ebaztzeko ditu, aurreko klausulan esandakoari jarraituz; eta, horrela ezin badira ebazti, urriaren 1eko 40/2015 Legeak (Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoak) aurretiazko tituluko VI. kapituluaren xedatutakoari jarraituko zaio.

6 HITZARMENAREN ONDORIOAK ETA IRAUPENA

Hitzarmenak ez ditu esku-hartzaileak behartuko nork bere eskumenei uko egin edo haiek aldatzera, eta hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatik erantzukizunak bakarrik hartzen dituzte bere gain.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da 2019ko abenduaren 31ra arte. Epe hori amaitu baino lehen, aldeek aho batez erabaki dezakete hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez, aipatu 40/2015 Legearen ezarritakoari jarraikiz.

7 HITZARMENA IRAUNGITZEA

Aurreko klausulan aipatutako iraupen-aldia igarotzeagatik edo aldeek suntsiarazi egin dutelako iraungiko da hitzarmena.

Aldeetako batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du zorrotz bete dadin edo hitzarmena hautsi dadin eskatzeko.

Hitzarmena hausten bada, aldeek hura amaitzeko baldintzak zehaztuko dituzte.

8 FINANTZAKETA

Lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu duen aldeetako bakoitzak bere gain hartu beharko ditu hitzarmen honen arabera ezarritako betebeharren ziozko gastu propioak, indarrean den aurrekontu-araudia betez.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin guztiarekin bat, bi aldeek goiburuan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena bi aletan.




Ignacio Jesús Berraondo Zabalegui
VICECONSEJERO DE SALUD
GOBIERNO VASCO




D. Ernesto Martinez de Cabredo Arrieta,
DIRECTOR GENERAL DE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA